



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

URRITASUNIK EDO MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN BEZEROENTZAKO INFORMAZIOA

Doako laguntza eta arreta **zerbitzua egoki eman** asmoz, honako **gomendioak** eskaini nahi dizkie Gasteizko autobus geltokiak mugikortasun murriztua duten bezeroei, dela urritasun fisikoa (zentzumenetan edo mugitzeko gaitasunean, iraunkorra edo aldi batekoa), adimen urritasuna edo beste edonolakoa, dela adinagatik. Gasteizko autobus geltokiak mugikortasun murriztua dutenen beharretara egokitu nahi ditu joan edo etorrian geltokia erabiltzen duen bezero orori eskaintzen dizkion zerbitzuak.

- Doako zerbitzu hau eskatzen duten bidaiariek laguntza bezero orori eskaintzen zaizkien zerbitzuak beren egoerara egokitu beharra dutela egiaztatu beharko diete geltokiko langileei, horretarako ezarritako lekuan. Honako agiriak baliatu ditzakete horretarako:
 - Urritasunen bat duten pertsonen kasuan, urritasuna egiaztatzen duen agiria, dagokion erakunde ofizialak emana.
 - Mugikortasun murriztua duten pertsonen kasuan, edozein osasun arazoi-rengatik edo adinagatik bezero orori eskaintzen zaizkion zerbitzuak beren egoerara egokitu beharra eskatzen duen mugikortasun murrizketa pairatzen duela egiaztatzen duen mediku ziurtagiri ofiziala.
- Bidaiariek gutxienez 36 ordu lehenago jakinaraziko dizkiete laguntza beharra dutela, bai eta berariaz zer nolako laguntza mota behar duten, garraio enpresa, geltokietako kudeatzaile, bidaia agentzia eta turismo operadoreei. Bidaiariek ezer jakinarazten ez dieten kasuetan, garraio enpresa geltokietako kudeatzaile, bidaia agentzia eta turismo operadoreek eskura duten guztia egingo dute –betiere zentzuzkoaren mugen barruan– laguntza ematen zaiela bermatzeko.
- 250 kilometrotik beherako bidaietarako, laguntza geltokian zuzenean eskatu dezakete, horretarako dauden edozein baliabide erabilita. Edonola ere, zerbitzua soilik geltokia irekita dagoen ordutegian emango da, hau da, 06:00etatik 00:00etara.



- 250 kilometrotik gorako bidaietarako, eta konpainia edozein delarik ere, laguntza konpainiari billetea erosteko unean eskatzea gomendatzen dizugu:

Madril	Alsa	http://www.alsa.es/nosotros/accesibilidad	902 42 22 42
Zaragoza	Alsa	http://www.alsa.es/nosotros/accesibilidad	902 42 22 42
Bartzelona	Alsa	http://www.alsa.es/nosotros/accesibilidad	902 42 22 42
Valentziako komunitatea	Bilman Bus	http://www.bilmanbus.es/protocolo_pmr.htm	945 27 71 90
Santander	Alsa	http://www.alsa.es/nosotros/accesibilidad	902 42 22 42
Asturias	Alsa	http://www.alsa.es/nosotros/accesibilidad	902 42 22 42
Galizia	Alsa	http://www.alsa.es/nosotros/accesibilidad	902 42 22 42
Galiziako hegoaldea	Vibasa		902 10 13 63
Gaztela eta Leon	Alsa	http://www.alsa.es/nosotros/accesibilidad	902 42 22 42
Extremadura	Alsa	http://www.alsa.es/nosotros/accesibilidad	902 42 22 42
Andaluziako ekialdea	Socibus	http://socibus.es/wp/contacto/discapacitados/	902 22 92 92
Andaluziako mendebaldea	Alsa	http://www.alsa.es/nosotros/accesibilidad	902 42 22 42

Beste helmuga batzuei buruzko informazioa 945 16 16 66 telefonoan.



- Eman beharreko laguntza behar bezala kudeatu ahal izateko bidaiariaren beharren berri jaso behar dugu. Laguntza eskatzeko unean, laguntza horrek zer nolakoa behar duen jakinarazi behar da, zerrenda honetako aukeraren bat hautatuz:
 - Zure gurpildun aulkian bidaiatu nahi duzu
 - Zure gurpildun aulkiarekin bidaiatu nahi duzu
 - Kortesiazkoko gurpildun aulkia behar duzu
 - Laguntzailea behar duzu
 - Besterik

Eskatutako informazioarekin fitxa bat osatuko da; izapidetza Datu Pertsonalak Babesteko Legeak xedatutakoaren arabera egingo da.

- Hauek dira gurpildun aulkian bidaiatzeko gordetako espazioaren neurriak, beti ere Desgaituek garraioak erabili ahal izateko irisgarritasuneko eta bazterketa ezeko oinarritzko baldintzak arautzen dituen Azaroaren 23ko 1544/2007 Errege Dekretuaren V. eranskinaren (Autobus bidezko hiri eta hiri inguruko garraioetan jarraitu beharreko oinarritzko irisgarritasun baldintzak) arabera:
 - Zabalera: 750 mm
 - Sakonera: 1.300 mm.
- Bidaia bere gurpildun aulkian egite dutenek, balazta aktibatuta izan behar dute, edo bateriak deskonektatuta, aulki elektrikoak badira.
- Garraio enpresak ez badu zerbitzua ematerik onartzen, erabakiaren arrazoiak berri eman beharko dio eskatzaileari, bai eta bidaia egiteko beste aukera alternatibo batzuen berri ere, betiere legean xedatutakoaren arabera.
- Garraio enpresa, bidaia agentzia edo turismo operadoreak urritasunik edo mugikortasun murriztua duen pertsona erreserba onartzeari, billetea eman edo beste nolabait eskurazteari, edo autobusean igotzeari uko egiten badiu, argudio hauetakoren bat eman ahal izango du:
 - Nazioarteko, Europako Batasuneko edo Estatuaren zuzenbidean jasotako segurtasun baldintzak, edo agintari eskumendunek ezarritako osasun eta segurtasun baldintzak betearazteko.
 - Ibilgailuaren diseinuak edo azpiegiturak (autobus geltokiak barne) urritasuna edo mugikortasun murriztua duen pertsona segurtasunez eta egiteko moduan autobusera igo, jaitsi edo lekualdatzea galarazten dutelako.



- Ukazioaren atzean arrazoi horietakoren bat baldin badago, eskatzaileak berak hautatuko eta behar laguntza eman diezaiokeen norbaitekin bidaiatzea eskatu ahal izango du, ukazioaren atzeko arrazoiak aplika ez daitezzen.

Pertsona laguntzaile horrek doan egingo du bidaia, eta arazorik ez bada, urritasuna edo mugikortasun murriztua duen pertsonaren alboan emango zaio lekua.

- Garraio enpresak erreserba onartu eta billetea ematen duelarik, doako laguntza eskariaren berri emango die irteerako eta helmugako geltokiei, bai eta -bidaiari zehar halakorik balego-, atsedean hartzeko edo autobusez aldatzeko bide erdiko geltokiari ere.
- Eskatzaile onartuak aurretiaz zehaztutako leku eta orduan agertu beharko dira; ordurik zehaztu ez bada, gutxienez ere irteteko ordua baino 30 minutu lehenago
- Urritasuna edo mugikortasun murriztua duen pertsonenganako **arreta zerbitzuan lehentasuna** urritasun motaren eta **laguntza eskabidearen arabera ezarriko da.**
- Laguntza zerbitzua egoki emateko, zure ekipajea bulto bakarrean biltzea, gurpilez hornitu dezazula eta gehienez ere 20 kiloko pisua gainditu ez dezala gomendatzen dizugu.